

Ipomoea indica: KANPAITXOA

Ipomoea indica: identifikazioa

Landare igokari iraunkorra da, 20 cm-rainoko hosto arrauzkarak edo biribilduak ditu. Zaharrenak trilobulatuak dira (argazkia ikus). Loreak, arrosa, more edo zuri kolorekoak, oso deigarriak dira eta 10 cm-rainoko diametroa dute. Ekainetik azarora bitartean loratzen da.

Ibaiertzetan oso ondo egokitzen da. Gure eskualdean estoloien bidez ugaltzen da: zurtoinetatik sortu eta sustraiak botatzen dituzten kimuak dira. Izozteak gaizki jasaten ditu. Lurra estaltzen duten populazio trinkoak sor ditzake. Substantzia kimiko toxikoak ekoizteko nolabaiteko gaitasuna du.



Ipomoea indica: jatorria eta kokapena

Kontinente amerikarreko eremu tropikal eta subtropikalean du jatorria. Landare-apaingarri gisa erabiltzen da eta beste kontinenteetako eremu epel askotan hedatu da. Iberiar penintsulako ekialdean oso ohikoa da. Nahiko ugaria da kantauriar isurialdeko zenbait lekutan, batez ere Bizkaian, 200 m-ko kotatik behera.

Ipomoea indica: arriskugarritasuna, eragina eta egoera

Gure eskualdean bertakotutako espeziea da eta beste eremu batzuetan oso erasokorra da. Ugalketa asexualerako duen gaitasunari esker, lurra estali eta bertako landaredia ordezkatzeko, zuhaixkak eta zuhaitzak barne.

Ipomoea indica: kontrol eta kudeaketa metodoak

Desagerraraz daitekeen espeziea da. Landareak aitzurraren laguntzaz erauzi behar dira. Landare osoa erauzi behar da, sustraiak barne.

Hondar guztiak bildu behar dira ernaberritzeak saihesteko. Poltsetan gorde eta balorizazio energetikoaz arduratzen den zentro eskudun batera eraman behar dira. Lehenengo esku-hartzearen ondoren, bertako espezieak berlandatu behar dira bigarren inbasio bat jasateko arriskua mugatzeko. Komenigarria da bi urteko jarraipena egitea kimuak kentzeko.

Erabilitako material guztia arretaz garbitu behar da.